

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 226

*2314/2023 EBAZPENA, abenduaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia hutsik uzten den.*

Ikusita Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Zuzendaritza Nagusi honen irailaren 5eko 1739/2023 ebazpenaren bidez argitaratu zen, irailaren 20ko EHAAAn.

Hori dela eta, Zuzendaritza honek deialdia bete gabe uztea erabaki du, aurkeztutako hautagaiek baldintzak betetzen dituzten arren, inguruabar pertsonalak direla-eta atzera egiten diotelako aurkeztutako eskabideari, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen ekainaren 28ko 8/1997 Legearen Hirugarren Arau Komunaren 28. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena EHAAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.